

Herri identitatea indartzen

Anoetan, herritarren arteko harreman sareak sortzeko beharra ikusi zuten. Hala, herri identitatea indartzeko auzolan kulturala beharrezkoa zela ondorioztatu zuten. Ekimen bat baino gehiago, herriaren funtzionamendua ulertzeko modu bat da.

| MARTIN VICIOSO |

JOAN DEN MENDEAN, biztanleria laukoiztu egin zuen Tolosaldeko Anoeta herriak. Euskal Herriko beste txoko ugarritan bezala, jende asko finkatu zen bertan, industrializazioari lotuta sortutako lanpostuak direla-eta. Mikel Errazkin historialariaren arabera, prozesu horrek herritarren arteko harremanetan eragin zuzena izan zuen, “herri berria” baitzen. Hala ere, azken 60 urteetan ere auzolana baliatuz hainbat ekimen egin dituzte anoetarrek. Besteak beste, Errazkinek *Komunitate baten herrigintza* lanean aipatzen dituen pilotaleku berria, Madril-Irun trenbideko geltokia eta Herri Ikastola.

Udalak argi ikusi zuen ez zuela nahi Anoeta “lo toki hutsa” izan zedin, batez ere gazteei begira. Gogoeta horren baitan, auzolan kulturala sustatu zuten: herritarrek herriarekin identifikatuta senti daitezten bertako kultur adierazpenetako subjektu izatea. Alegia, parte-hartzea eta auzolana oinarri dituzten ekintzak bultzatzea.

Herria abian jartzen duen errota

Auzolan kulturala azaltzeko kultur errotaren metafora erabiltzen dute. Ogi ona atera ahal izateko, fabrikazio prozesuan parte hartzen duten elementu guztiek funtzionamendurako eta behar denerako lotura egokia izan behar dute. Lehengaia, azpiegiturak eta energia sortzailea behar dira. Anoetan, elkarlanean dabilzan kolektiboek osatzen dute errota eta Errazkinek aipatu liburuan zerrendatu ditu: Ikastola, Gazte Asanblada, Alkartasuna jubilatuen elkarte, Loatzo musika eskola, Txolarrre Kultur Elkarte eta Ziripot aisialdi taldea dira, beste hainbaten artean, herri identitatearen ogia eguneroko osatzen duten elementuak.

Kolektibo bakoitzaren indarrak gain, kultur espazio berrien sorrera ere garrantzitsua dela pentsatu zuten. Horregatik, anoetar guztientzako ekimenak antolatzeari ekin zioten, horietako batzuk garai bateko ohiturak eguneratuz. Adibide garbiena dantza-sokaren berreskuratzea izan da: euskal dan-



Dantza-sokak dantza tradizional ugari batzen ditu eta 50eko hamarkadan egiteari utzi bazioten ere, 2003an Anoetako gazteek berpiztu zuten.

tza tradizional ugari batzen ditu eta 50eko hamarkadan egiteari utzi bazioten ere, 2003an herriko gazteek berpiztu zuten. Herriko ohitura zaharra zena eguneratu eta Inauteri aurreko larunbatean dantzatzen dute (lehen San Joan egunean egiten zuten). Izan ere, eguna herriko festetatik at izateak berezko indarra ematen dio. Bestalde, emakumeari festan espazio propioa eman nahi izan zaio.

Anoetarrenak diren sinboloak ere berreskuratzen jardun dira, kukua kasu. Tolosaldean ohitura dago herri bakoitzeko biztanleei ezizena jartzeko, eta amezketarrak euliak eta andoaindarrak hontzak diren moduan, anoetarrei kuku deitu izan zaie. Hegazti honen irudia herritarren adierazgarri gisa indartu dute azken urteotan. Festetako protagonista izateaz gain, herriko armari berriaren jartzea erabaki dute. ■

